

opusdei.org

Bilbotik Mexikora, ikasturteak izandako hutsuneak betetzera

Komunitate txiroekin
harremanetan jartzean gauzak
aldatzeko gogoia sentitzen duzu,
zeure ingurutik hasiz

2006 Mar 19

Gezurra badirudi ere, hogeia miloi
biztanle baino gehiago daukan
Mexiko Hiritik ordu betera planetako
eskualderik txiroenetako bat dago:
Chalco arana. 2000 metrotik gora

dagoen gune menditsu honetan bi miloi pertsona bizi dira pilatuta. Txaboletan bizi dira, asko eta asko argindarrik gabe, dieta urriarekin, apenas otordu bat egunean eta osasun eta garbitasun egoera negargarrian.

Familiek seme-alaba ugari daukate eta euren etorkizuna guztiz zalantzagarria da, gehienek gurasoek daukaten bizimodu berbera izango dute-eta. Beharbada, txirotasunetik ateratzeko daukaten aukera bakarra hamasei urterekin bigarren mailako ikasketak amaitzean ikasketa-espediente ona lortzea izan daiteke. Gutxi batzuk bakarrik, ikaslerik onenek soilik, lortu ahal izango dituzte hiriburuan unibertsitateko ikasketak egiteko gobernu mexikarrak ematen dituen bekak.

Bidealde Ikastetxe Nagusiko dozena bat boluntariok geure burua eskaini genion Mexikoko Unibertsitate

Panamerikarraren gobernuz kanpoko erakundeari. Gure zeregina sei eta hamabost urte bitarteko ikasleentzat udako eskola antolatzea izan zen. Jarduerak lau aste iraun zuen eta ikasturteak izandako hutsuneak betetzeko ikasketa plan zorrotza landu genuen. Amerikan Mexiko da lan-absentismo maila handienetakoa daukana eta irakasle asko ez dira joaten ikastetxe publikoetara eskolak ematera

Goizero Acuautila ikastetxera autobusez joaten ginen. Han hirurehun ikasle baino gehiago izaten genituen zain. Umeei espainola, matematika, gorputz-hezkuntza, antzerkia eta musika irakasten genien. Bilatzen dena zera da, boluntarioen artean elkartasunerako kultura piztea.

Egia esan, arazo berriei aurre egiten ikasten duzu eta laguntzen ditugun komunitate pobreekin harremanetan

jartzean gauzak aldatzeko gogoa sentitzen duzu, zeure ingurutik hasiz. Eskuzabaltasuna eta elkartasuna funtsezkoak dira. Ume mexikarrak oso atseginak dira, eskuzabalak eta zintzoak. Eskolara heltzen garenean zain dauzkagu, irribarre zabala ezpainenetan daukatela. Esperientzia hori beti izango dut gogoan.

Santiago Zayas

.....

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/bilbotik-
mexikora-ikasturteak-izandako-
hutsuneak-betetzera/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/bilbotik-mexikora-ikasturteak-izandako-hutsuneak-betetzera/) (2025 Abu 10)